



Etxe askotan ordea, esaldi eder hori errealitate bihurtzea zaila izaten da, gurasoetako batek edo biek ez dutelako hizkuntza menderatzen. Kasuan kasu, garrantzitsua da:

- **Haurrak D ereduari matrikulatzea**, euskarazko hezkuntza bermatzen duen eredu bakarra delako.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak eta ekintzak euskaraz izatea ziurtatzea**, gazteen arteko harremanak sendotzeko eskolaz kanpo ere euskaraz aritzea garrantzitsua da.
- **Euskarazko kultur eskaintza eta kontsumoa haurrari gerturatzeko**. Gaueroko ipuina edo abesti goxoa euskaraz abestu, telebista, ikuskizunak...
- **Euskararen aldeko jarrera eta iritzi positiboak** transmititzea.

Hainbat adituren arabera, hizkuntzak ez dira eskolan bakarrik ikasten; bizitzan ikasten dira, kalean, parkean eta beste hainbat toki eta egoeratan. Haurrek tresnak eta bitartekoak behar dituzte eskolaz kanpoko esperientzietatik jasotakoa hizkuntza bidez komunikatzeko, eta hori nagusiki etxeko esku dago.

Garrantzitsua da, familiek seme-alabei etxean nahiz denbora librean euskaraz aritzeko ahalik eta aukera gehien eskaintzea.



EUSKARA
ezagutzetik erabiltzera

@oarsoarrak   
www.oarsoarrak.eus



Euskaraz hezi eta bizi





Zorionak familia!

Ongi etorria izan dadila mundura
familiako kide berria.

Etapa berri honetan
osasuna eta maitasuna opa dizkizuegu!

Euskaraz hezi eta bizi

HAURREK IKUSTEN DUTENA EGITEN DUTE
ETA ENTZUTEN DUTENA ESATEN DUTE,

EUSKARA HELDUEN HIZKUNTZA ERE BADELA IKUSTEN BADU,
ARE ETA ABERATSAGOA IZANGO DA HIZKUNTZA HORI.

OARSOARRAK
F A M I L I A

Guraso euskalduna bazara, zer egin dezakezu zure seme-alaben euskararen ikasketan laguntzeko?

1. Etxean euskaraz egin, bai haurrekin zein bikotearekin. Familiako eta inguru hurbileko gainerako helduekin.
2. D ereduan matrikulatu.
3. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezela bermatu.
4. Euskarazko kultur kontsumoa zure seme-alabak eskueran izan dezan saiatu (ipuinak, abestiak, filmak, ikuskizunak eta liburuak).
5. Euskararen aldeko jarrera eta iritzi positiboak sustatu (euskarazko kulturari eta ohiturei balioa eman). Bizipen alaiak, jostagarriak eta euskara bizitzako funtzio guztietarako balio duen hizkuntza dela transmititu.

Euskaraz hezi eta bizi

EUSKARA
ezagutzetik erabiltzera

Gurasoetako batek euskaraz badaki eta besteak ez...

1. Euskaraz dakien gurasoak haurrei beti euskaraz hitz egin. Etxean bikotearekin egin ezin baduzu ere, haurrekin saiatu euskaraz egiten.
2. D ereduan matrikulatu.
3. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen eskatu eta ziurtatu.
4. Euskarazko kultur kontsumoa zure seme-alabak eskueran izan dezan saiatu (ipuinak, abestiak, filmak, ikuskizunak eta liburuak).
5. Euskararen aldeko jarrera eta iritzi positiboak sustatu (euskarazko kulturari eta ohiturei balioa eman).

Euskaraz ez badakizu...

1. Euskara ikasten saiatu, ikasteko edo trebatzeko ikastaroak eta laguntza pila dituzu, animatu euskara ikastera! Euskarari balioa aitortzen diozuela erakutsi seme-alabei.
2. Zure haurra D ereduan matrikulatu.
3. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen eskatu eta ziurtatu.
4. Euskarazko kultur kontsumoa zure seme-alabak eskueran izan dezan saiatu (ipuinak, abestiak, filmak, ikuskizunak eta liburuak).
5. Nahiz eta zuk euskaraz ez jakin, euskararen aldeko jarrera eta iritzi positiboak sustatu ditzakezu (euskarazko kulturari, ohiturei... balioa eman).